

IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresa erantzunkizun mugatuko sozietate bat izango da, 4 bazkideekin. Bertan denok egingo genuke lana. Lehengo inbertsioa banku bati mailegu bat eskatuz egingo genuke. Ondoren, enpresa arrakasta izan eta gero, enpresako diruarekin materialak erosi beharko genituzke. Horretaz aparte, supermerkatu bakoitzarekin hitz egin beharko genuke, beraien lokalen neurriak hartzeko eta horrela, gure GPS-a programatu ahal izateko. Gure diru iturri nagusia supermerkatuetik lortutakoa izango da, beraien izango direlako gure bezero nagusiak. Gainera, gure produktua patentatu egingo genuke, gure ideia beste pertsona batek ez kentzeko.

